



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



LEGELARIA

Giza elkarteak ala klubak?

UDARA GARAI BEREZIA da informaziorako. Aurtengoa ez da salbuespena izan. Berdintsu doa. Beharbada, esan daiteke bestetan baino sakonagoa izan dela; gertaera larri gehiagoren berri izan dugula, behintzat. Gertaera txarrak edo negatibok: gudak, birusak, hilketak, liskar politikoak, iruzur larriak... Esandakoa: betikoa. Baina, aurten, nire oporretan, gertaera horien aurrean, beste hausnarketa bat egin dut: orokorra eta ezkorra.

Gehien errepikatu diren berrietan, gehien komentatu diren gertaeretan, arreta gehien eskatu didaten albistetan, ezauzgarri komunak aurkitu ditut, lehendik sumatzen nituenak, noski, eta horietako bat azpimarratu nahi dut: giza elkarteetan baino, klub pribatueta antolatuta gaude gizakiok. Klubak, azken finean, interesak edota helburu komunak dituzten pertso-

Klub pribatueta antolatuta gaude gizakiok. Interesak edota helburu komunak dituzten pertsonen elkarteak besterik ez dira. Baina ez da hor amaitzen klubaren nortasuna. Klub pribatuak badituzte derrigorrez bete behar diren baldintza batzuk, batez ere, finkatzen diren kuota garaiz ordaintzea eta onartzen diren elkarbizitzarako arauak errespetatzea

nen elkarteak besterik ez dira. Baina ez da hor amaitzen klubaren nortasuna. Klub pribatuak badituzte derrigorrez bete behar diren baldintza batzuk, batez ere, finkatzen diren kuota garaiz ordaintzea eta onartzen diren elkarbizitzarako arauak errespetatzea. Horren truke, abantaila batzuk ere eskaintzen dizkiete kideei: elkarte edo gune itxia izatea, klubaren laguntza jasotzea horrela behar izanez gero eta beste elkarte eta pertsonetikiko "segurtasun tarte" mantentzea. Halere, klub guztiak ez dira, inolaz ere, berdinak; oso maila eta funtzionamendu desberdinetakoak daude.

Bada, hori da udara honetako gertaera potoloeneta hauteman dudana ezauzgarri

komuna: gizakiok klub pribatueta antolatuta garela. Begira, bestela:

– Ebola birusa dela eta: ez dakit zehazki zenbat pertsona dauden kutsatuta Afrikan eta zenbat ari diren hiltzen egunero; horietako batzuk, oso gutxi, ipar-mendebaldekoak dira, hau da, ipar-mendebaldean jaioak edo hor bizi direnak. Bada, horien herrialdeek euren kutsadura ezagutu bezain pronto erreskatatu dituzte, ipar-mendebaldera eramane eta salbatzen saiatu dira. Nork daki zer dirutza gastatu den horretarako, baina zerbait argi geratu bada, niretzat, zera izan da: zure klub handiak lagunduko zaituela interesa baldin badago, baina, gogorra bada ere, zure egoera bereberean aurkitzen diren zure beste elkarteko kideez ez da inolaz arduratuko. Hauxe gertatu da bi misiolari espainiarrekin: Espainiako Gobernuak haiek aberriatzea erabaki zuen beren erlijio-ordenako beste misiolariak eta Liberiako herritarrak "ahaztu". Hori da klub baten betekizuna ondo betetzea, hori.

– Ildo beretik doa Afrikatik Europa etorri nahi duten pertsonen istorioa; hor jarraitzen dute, hesi bat gaingitu ezinik, klub fin batean sartu nahian, horretarako kuota handiegia ordaintzen ari direlarik. Baina gure kluba oso pribatua eta apartekoa denez, bada, sarrera ez da doan, ezta aukerakoa ere: zorte txarra izan du urrun eta beste azal kolorez eta txiro jaio denak.

– Badaude, baita ere, oso klub fineko kideak direnak, baina, ai ama!, dagokien kuota ordaintzea "ahaztu" dutenak. Edota klubeko kideak izateko baldintzarik gabeko eskubidea dutela pentsatzen dutenak, beraiek izan ezik beste taldeko kideek gastu komunak ordainduko dituztelarik. Hauek ez dute klubaren beharrik: beraiek dira kluba eta beste gainontzeko guztiak, beren morroiak. Pujol jauna, zer-nolako klubeko zer-nolako kidea izan nahi duzu?

– Badaude baita ere giza talde berriak antolatu nahi dituztenak, eta ezin. Ea zer sortzen den Katalunian eta Euskal Herrian; ea benetako giza elkarteak osatzen ditugun klub pribatuak baino. ■

